

SECCIÓN AMENA

¡ZENEK ESAN!

Begi urdiñdun inozentia
 lo zaude far irrichuan,
 negar kinka bat atera gabe
 betiko siaskachuan;
 andare chiki zure laztana
 erdi gordia, chokuan,
 gurutzechua lokarritikan
 lepotik beera pechuan,
 amak utzitzen etzaituena
 zaudenian lo goşuan,
 diyot zerala aingerucho bat
 nere naitasun ichuan.

.
 Baña gaur nola mudatu detan
 lenagoko iritziya,
 ¡koncho! ezta ez, uste nubena
 angeruaren graziya;
 pisoyal garbi eder fiñetan
 izanagatik aziya,
 beti aurtzayen beso azpitik
 dariyo duben guziya,
 dariyona.... nik eztakit zer dan
 baña nola dan guriya,
 goitik beraño zikintzen diyo
 mantal planchatu churiya.

V. IRAOLA.